

# **2019-2020 KURTSOA**

## **IKASLE OFIZIALENTZAKO INFORMAZIOA**

### **I. IKASTURTEAREN HASIERA**

2019-2020 ikasturteko klaseak irailaren 30ean hasiko dira astelehen-asteazkenetako ikasleentzat eta urriaren 1ean astearte-ostegunetakoentzat.

Talde bakoitzari dagokion gela (ikasleak jakin egin behar du zein taldetakoa den) Eskolako behe-solairuko kristaletan eta solairu guztietan egongo da jarrita irailaren 30ean.

### **II. ORDUTEGI-ALDAKETA**

Eskolak ez du ziurtatzen matrikula prozesuan esleitutako ordutegiaren aldaketarik. Hala ere, ikasleren batek ordutegia derrigor aldatu beharra baleuka, aldaketa egiten ahaleginduko da, ikasleak eskatzen duen orduan plazarik libre balego. Horretarako, ikasleak ordutegi-aldaketarako orria eskuratu behar du, bete eta idazkaritzan entregatu.

Eskabidea egiteko egunak: Urriaren 4tik 15era (13:00ak arte), idazkaritzan edo [info@eoidonheo.org](mailto:info@eoidonheo.org) posta elektronikoan. Epe hau amaitutakoan azaroaren 4tik aurrera berriro eskatu ahal izango da. 4tik 15era eskatutako aldaketa lortu ez dutenek berriro eskatu beharko dute nahi izanez gero.

Ordu-aldaketen erabakia (aldaketa lortu dutenena zein ez dutenena) urriaren 18an (14:00etan) IKASGUNEA plataformaren bidez ikusiko da. Eskabideari emandako erantzuna jakindakoan, ordutegi-aldaketa lortu duena bere talde berrira joango da eta ordutegi-aldaketarik lortu ez duenak 3 aukera ditu: hasieran izan zuen taldera joan, azaroaren 4tik aurrera berriro eskatu edo matrikulari uko egin.

### **III. MAILA ALDATZEA**

Ikasturtea hasita dagoenean, auto-ebaluazio oker baten ondorioz ez dagokion mailan egonez gero, ikasleak mailaz igoteko edo jaisteko eskatu ahal izango du. Eskatzen den orduan plazaren bat libre egon ezean ezin izango da egin aldaketa. Mailaz aldatzeko ezinbestekoa izango da irakasleak baloratzea eta baimena idatziz ematea.

### **IV. KLASERA EGINDAKO HUTSEGITEEN KONTROLA**

Ikasle ofizialak klasera joateko eskubidea du, eta garaiz joaten behartuta ere badago. Justifikaziorik gabe behin eta berriro egindako hutsegiteengatik, eskolara joateko eskubidea eta ofiziala izatearren hurrengo ikasturtean matrikulatzeko duen lehentasuna galduko ditu. Ez du galduko, baina, azterketak egiteko eskubidea. Hutsegiteen topea 14 egunekoa da (erdipresentzialak 7).

Ikasleak, onartu daitezkeen hutsegite guztietara heltzen denean, jasoko du horren berri.

Ikasle ofizialak zehaztasun hauen berri izan beharra du; bere hutsegiteen zergatia irakasleari jakinarazi ere egin behar dio. Hutsegitea aurrez jakinikoa bada, gertatu aurretik emango dio horren berri irakasleari. Ezustekoa bada (gaixotasuna, istripua eta abar), horren agiria helaraziko dio irakasleari bi aste pasatu aurretik. Beraz, hutsegitea aurrez jakindakoa izan zein ez, ikasleak horren berri emango dio irakasleari pertsonalki edo beste bideren batez, hutsegiteen berri kristaletan jarri aurretik edo postaz etxera bidali aurretik.

## V. MATRIKULA OFIZIALARI UKO EGITEA

Edozein ikaslek egin diezaioke uko matrikulari, horretarako eskabidea 2019ko abenduaren 30 baino lehenago aurkeztuz gero. Eskaria arrazoizkoa ez bada eta ikasleak hurrengo ikasturtean matrikulatu nahi badu, onartua izateko prozeduran hartu beharko du parte berriro ere.

Data horretatik aurrera, eta 2020ko apirilaren 30 arte, gaixotasun edo istripu larriengatik, edo ustekabeko arazo larriengatik eskatutako uko egiteak baino ez dira onartuko. Erabakia Zuzendaritza Taldeak hartu beharko du, nahikotzat jotako arrazoiak ikusi ondoren. Erabaki honek Eskolako Erakunde Gorenaren oniritzia beharko du. Horrelako erabakia hartzeko arrazoiak hauexek dira, besteak beste: bizilekua edo lantokia aldatzea, ikasleak ikasketa ofizialak egiteko beste ikastetxe batera joan beharra izatea eta abar.

Dena dela, ikasleak, uko egiteko eskariarekin batera, horretarako dituen arrazoiak, inongo zalantzarik gabe, argi egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuko ditu. Ikasleak aurkeztutako eskari eta agiri guztiak Eskolan artxibatuko dira dagozkien xedeetarako.

2020ko maiatzaren 4tik aurrera, ikasleari azken ebaluazio probetara Eskolara etortzea eragozten dioten gaixotasun edo istripu larriengatik bakarrik onartu ahal izango da deialdiari uko egitea, eta hau, beti ere, eskaria egin duenak proba horietakoren bat lehenago egin ez badu.

## VI. AZTERKETA DEIALDIEN KOPURUA

Ikasleak 4 deialdi izango ditu Oinarrizko, Tarteko eta Goi Mailako kurtso bakoitza gainditzeko. Deialdiak amaitutakoan, ikasleak libre legez bakarrik jarraitu ahal izango ditu ikasketak, harik eta maila hori gainditu arte.

Zuzendaritza taldeak, Eskola-kontseiluaren iritzia jarraituz, kurtsoko beste deialdi bi onartu ditzake ikasle bakoitzaren zirkunstantziak, matrikulatze-gorabeherak eta klaseak zenbateraino dauden beteta ikusita, oinarrizko mailarako muga lau urtekoa delarik; seikoa, bitarteko mailerako; eta hirukoa, maila aurreturako.

Horretarako, ikasleak aparteko deialdirako orden zenbakidun eskari-orria idazkaritzan eman behar du.

## VII. IRAKASLEEN HUTSEGITEAK

Ahal dela, denbora izanez gero, irakasleren bat klasera etorri ezin bada, mugikorrera mezu bat bidaliz jakinaraziko da, ikasleek alferreko bidaiarik egin ez dezaten. Horregatik, komeni da zenbakiaren aldaketak jakinaraztea.

Donostian, 2019ko irailaren 24an